

Ostalaritzako hizkuntza lantzeko ikastaroak

HABE

Zer dira ostalaritzako hizkuntza lantzeko ikastaroak?

Ostalaritzan lanean dabilen jendeak oinarrizko komunikazioa euskaraz ikasten edo bideratzen hasteko ikastaroak.

Norentzat dira?

16 urtetik gorako izan, Euskadiko Autonomia Elkartean bizi, ostalaritzan jardun eta euskara batere jakin ez edota mostradore baten aurrean euskaraz moldatzeko gai ez direnentzat.

Zertarako dira?

Ostalaritza munduan, tabernan zein jatetxean, egunerokoan gertatzen diren egoerei euskaraz aurre nola egin ikasten edo trebatzen joateko eskolak izango dira.

Zenbat irauten dute?

60 ordu guztira: 6 ordu astean 3 egunetan banatuta.

Zer ikasten da?

Ikastaro honetan zuzeneko eta eguneroko erabilerara bideratutako materiala landuko da, teoretan nahasi gabe eguneroko zereginei euskaraz erantzuteko gai izatea da helburua, hala nola: edariak, zenbakiak, freskagarriak, musika, laguntza, debekuak, menua, eskaerk, kexak...

Ariketek, batez ere, gai horietako hiztegia eta hizkuntzaren oinarrizko ezagutza lantzeko balio dute (denbora eta espazioko nozioak, eguneroko elkarrizketak...etab.).